

# BERRIZTARRA

2011ko UZTAILA



## Datozen lau urteetarako

**B**errizko udalbatza berria hasi da lanean. Datozen urteetarako asmo, kezka eta proiektu asko elkarbanatuko dituzte. Herritarrak ordezkatzeko dituen lan-taldea ezagutzeko aukera duzue ale honetan.

# Udalbatza lanean hasi da




**Ekainaren 11n eratu zen Berrizko udalbatza berria. Datoren urteetarako udalaren izenean lan egingo duten zinegotziek beren kargua hartu zuten. Maiatzaren 22ko udal hauteskundeetako emaitzen arabera, EAJ alderdiak bost zinegotzi, Bilduk beste bost eta PSEk bakarra izango dute.**

Udalbatza eratzeko saioan Roland Isoird aukeratu zuten alkate. Horretarako bozketan EAJren hautagaiak bere alderdikideen bost botoak jaso zituen. Bilduko zinegotziek euren alkategaiari, Xabier Zalduari, eman zizkioten botoak. Eta PSEko ordezkariak bere buruari eman zion botoa.

*Aquí tenéis los resultados de las elecciones municipales celebradas el 22 de mayo del municipio de Berriz. Partiendo de esos datos el 11 de junio se constituyó la nueva corporación municipal, que durante los próximos cuatro años llevará las riendas del Ayuntamiento de Berriz. En el pleno para constituir el nuevo Ayuntamiento Roland Isoird fue proclamado alcalde de Berriz. Consiguió cinco votos de los 11 representantes. Bildu presentó y votó la candidatura de Xabier Zaldúa y el PSE la de Fran Pino. A pesar del empate entre el candidato del PNV y Bildu, Roland Isoird recogió el testigo de la mano de Javier Azpitarte alcalde saliente, ya que su candidatura fue la lista más votada en las elecciones municipales. En este reportaje podréis leer las opiniones, objetivos e inquietudes de los 11 concejales. La corporación municipal ya ha empezado a dar sus primeros pasos, y en los próximos días se constituirán las diferentes comisiones o áreas de trabajo.*

## Udalaren Osaketa



# “Herritarrengandik hurbil lan egin nahi dut”



**Roland Isoird**  
ALKATEA

**36 urte ditu eta soziologoa da ikasketaz. Euskararen Etxeko arduraduna izan da eta azken urteetan Azkue Fundazioan lan egin du euskara eta teknologia berriak uztartzen. Gaztetatik, Berrizko jai batzordeko kidea izan da eta azken legegintzaldi bietan zinegotzi izan da; lehenengoan kultura batzordeko presidente izan zen eta, azkenengoan, alkateorde izateaz aparte, gobernazio eta kontu batzordeko buru ere bai. Etxean ere izan du irakaslea: 1987tik 1991ra bere aita, Juan Luis Isoird, Berrizko alkate izan zen.**

*Zinegotzia izan zara zortzi urtez eta orain alkate. Zertan igarri duzu aldaketa?*

Alkateak beste eginkizun batzuk ditu; 24 orduetan lan egiten duela esan dezakegu eta gainera arlo guztiak ezagutzeko ardura dauka. Aldea badago bai.

*Bi aste daramatzazu alkate. Zelango udala-udaletxea aurkitu duzu?*

Lehenengo egun hauetan udaleko teknikari eta langileekin egon eta departamendu diferenteak zertan lan egin duten ikusi eta lan egiteko zer modu duten ikasten ibili naiz. Gerora erabakiak eta lan ildoak jartzeko balioko didate. Ikusi dudanarekin esan dezaket, daukaguzan zerbitzuetan hobekuntzak ezar daitezkeela eta horretan arituko gara.

*Lan arloak bardinak mantenduko dituzu?*

Epe laburrean lan batzordeak sortu eta ardurak banatzeko asmoa daukat. Uztailaren erdialderako nahiko nuke guztia finkatuta izatea.

*Zer nahiko zenuke lau urteotan lortzea?*

Herritarrengandik hurbil lan egin nahi dut. Herritarrek eskatzen dute egunerokoan eta kalean, euren arazoak entzutea, aztertzea eta sortzen zaizkien egunoroko premiei erantzun egokia ematea. Ondo dago azpiegitura berriak sortzea, baina ezin ditugu ahaztu egunero sortzen diren arazoek ere konponbidea behar dutela. Herritarrek eguneroko horri kasu egitea eskatzen dute. Beraz, lehentasunak aztertzean horrek ere kontuan hartu beharko ditugu.

**“USTE DUT KOSTUEN GAINENKO IKERKETA SAKONA BEHAR DELA ETA AURREZTEKO MODURIK BADAGO HORRI EKITEA”**

*Zein arlok uste duzu behar duela arreta berezia?*

Arlo guztiek bere neurrian beharko dute arreta, baina krisia kontuan hartuta garrantzitsua da kontuak behar den moduan eramatea. Uste dut kostuen gaineko ikerketa sakona behar dela eta aurrezteko modurik badago horri ekitea. Gero, herrian lan barik jende asko dagoela jakinda horri aurre egiteko neurri eta ekimenak garatzen jarraituko dugu. Auzoek ere arreta berezia behar dute. Eta hasieran aipatu dudan hurbiltasunaren ideiarri lotuta, herritarrei ematen zaien arreta hobetzea beharrezkoa dela uste dut. Orain arteko presentziala hobetuz, baina teknologia berriak erabilia telefono bidezko arreta edota internet bidezkoa sendotuz.

## Y a la tercera, alcalde

Durante dos legislaturas Roland Isoird ha estado al frente de la comisión de cultura primero y en los últimos cuatro años junto al cargo de teniente alcalde presidente de gobernación y cuentas. Con 36 años ha empezado su tercera legislatura como alcalde, siguiendo los pasos de su padre Juan Luis entre los años 1987 y 1991.

Durante las dos primeras semanas se ha reunido con las personas responsables y técnicas de las diferentes áreas de trabajo del Ayuntamiento y

en las próximas semanas le gustaría definir y crear las comisiones correspondientes.

Roland Isoird quiere gestionar su trabajo al frente del Ayuntamiento desde la cercanía con los y las berriztarras. Cree que el día a día de las personas que viven y trabajan en Berriz es importante, saber escucharles y después de analizar ofrecerles la mejor respuesta a los problemas que tienen. Para ello, la atención a la ciudadanía será uno de los principales servicios que mejorarán.

## •••Berrizko udal talde berria

# 10 zinegotzi, ham

Datozen lau urteetan egiteko garrantzitsua daukate eskuartean: herria kudeatzea edo gobernatzea. Alkatearekin batera lan handia daukate egiteko. Guztiak, baina, gogotsu eta ilusioz datozela azpimarratzen dute. Bakoitza ezagutzeko galdetegi laburra betetzeko eskatu eta etxeko lanak ondo egin dituzte.



**Begoña Navarro Bragado**

**50 urte**  
**Etxeko Andrea**  
**Hirugarren legealdia**  
**EAJ-PNV**

**"Euskararen erabilera gazteen artean bultzatu behar dugu"**

Gure herriko eremu desberdinak garbi eta txukun mantenduak izateko bideak jorratu behar ditugulakoan nago eta herritar guztiak irisgarriak diren kale eta azpiegiturak izatea bermatu beharko genukeela be. Kultura alorrean herritar guztiak ego-kitutako eskaintza kulturala sustatzea ere ezinbestekoa dela uste dut. Bestalde, Euskararen erabilera nahiko urria da gazteen artean eta arazo horri ere aurre egin beharko digu.



**Miguel Angel Aguado Villazán**

**49 años**  
**Responsable de Calidad e Industrialización.**  
**Primera legislatura**  
**EAJ-PNV**

**"Es importante permitir a la juventud tomar parte activa"**

Creo que debemos trabajar para que el ayuntamiento sea cercano al pueblo, que sepa escuchar, analizar los problemas y sugerencias de las personas, dar respuestas eficaces y que tenga la capacidad de adelantarse a las necesidades y preocupaciones de nuestros vecinos/os. Debemos trabajar conjuntamente con las personas de nuestro pueblo y crear espacios de participación ciudadana. Es importante crear una dinámica de participación que también permita a nuestra juventud tomar parte activa de la vida social de nuestro pueblo.



**Ainhoa Larrañaga**

**42 urte**  
**Gizarte Langilea**  
**Lehenengo legealdia**  
**EAJ-PNV**

**"Denek bizi kalitatea bermatzea beharrezkoa ikusten dugu"**

Berrizen bizi diren pertsona guztien bizi kalitatea bermatzea beharrezkoa ikusten dugu, bai eta ingurune tolerantia, berdintasunezkoa, parte-hartzailea eta kohesionatua sortzea ere. Bestalde, pertsonak edo familiek izan ditzaketen zailtasunei begira, beharrezkoak diren mekanismoak ezarri behar ditugu, laguntza sozio-ekonomikoen xedea bidezkoa eta zuzena izan dadin. Eta bizilagun guztien eskaerei erantzun ahal izateko ere gizarte, osasun, prestakuntza, lan eta hezkuntza zerbitzuen arteko koordinazioa ere sendotzea ezinbestekoa ikusten dut.



**AITOR AGIRRE ALBA**

**36 años**  
**Troquelista**  
**Primera legislatura**  
**EAJ-PNV**

**"El trabajo que se hace en el Ayuntamiento debe llegar al pueblo"**

En el Ayuntamiento se está trabajando por el bien del pueblo y queremos potenciar que ese trabajo sea más visible, para que las y los berrizarras conozcan el día a día del ayuntamiento. Por eso creo que es importante informar, y la clave será la mejora en la atención a la ciudadanía. Debemos crear un canal de comunicación más ágil y eficaz entre la ciudadanía y el Ayuntamiento, para saber en qué podemos contar con su ayuda.

# ar asmo eta gogo



**Fran Pino Escobar**

**36 años**  
**Técnico comercial**  
**Primera legislatura**  
**PSE**

**"Espero que trabajemos en conjunto por el bienestar del pueblo"**

Creo que en todas la áreas hay cosas para hacer, cambiar y mejorar, teniendo en cuenta lo que se ha hecho durante los últimos cuatro años. Sobre todo me parece que debería haber más control en asistencia social y replantear el área de bienestar social. Las ayudas que se dan, por qué, cómo y a quién, deben ser transparentes. Espero que toda la corporación trabajemos en conjunto, a pesar de nuestras diferencias, por el bienestar del pueblo.



**Puri Pérez Gallego**

**60 años**  
**Sus labores**  
**Tercera legislatura**  
**Bildu**

**"Es importante que se responda siempre a la ciudadanía"**

Creo en un Ayuntamiento más cercano al pueblo, que responda a las necesidades, dudas y quejas de la ciudadanía. Para eso las comisiones deberían ser participativas y abiertas para las personas que quieran colaborar y se interesen por Berriz. Por otra parte, no debemos olvidarnos de las infraestructuras existentes. Necesitan de un mantenimiento constante para que no se conviertan en viejas.



**Leire Huerta Ortuoste**

**33 urte**  
**Irakaslea**  
**Lehenengo legealdia**  
**Bildu**

**"Auzoek ere protagonismoa hartzea garrantzitsua da"**

Herritarrek konfiantza osoz udaletxera gerturatzeko bideak ipintzea beharrezkoa da. Herritarrek behar duten laguntza eman behar die udalak esateko dutenari entzunez. Bestetik, orain arte nahiko ahaztuta egon diren auzoek ere protagonismoa hartzea garrantzitsua da. Lanerako eta ikasteko gogoz gatzoz eta sinistuta nabarmentzen dugun udal parte-hartzaile baten.



**Josu Albizuri Falcon**

**27 urte**  
**Sukaldaria**  
**Lehenengo legealdia**  
**Bildu**

**"Parte hartze foroa eratzea eskatuko dugu"**

Udaleko atearak herritarrei zabalik egon behar dute, informazioa ahalik eta argiena eta garbiena jaso dezaten. Bestetik, euren ideiak, eskaerak eta proposamenak udal ordezkariari bidertatzeko, parte hartze foroa eratzea, eskatuko dugu. Besteak beste, herritar askoren egoera ekonomiko larriak eta euskararen erabilerak kezkatzen naute. Herritarren laguntzarekin eta daukagun ikasteko gogoarekin egingo dugu lan.



**Xabier Zaldúa Milikua**

**26 urte**  
**Irakaslea Durangaldeko LHI**  
**Lehenengo legealdia**  
**Bildu**

**"Udal parte-hartzailea eraikitzea izango da gure erronka"**

Herritarrekin batera ekin nahi diogu ibilbide berriari, beraiei hitza emanez. Guk landutako programa Berrizetik datozen lau urteetan izango dituen beharrezko erantzuteko landu dugu eta horretarako udal parte-hartzailea eraikitzea da gure erronka. Horrekin batera zinegotzi guztion dietak erdira jaistea proposatuko dugu, kontuan hartuta herritar askok bizi duten krisi egoera, eta diru hori lanpostu bat sortzera bideratu.



**Maite Lopez Zabala**

**30 urte**  
**Antzerkilaria eta aretozaina**  
**Lehenengo legealdia**  
**Bildu**

**"Kultur programa zabal eta erakargarri bat sortzea nahiko nuke"**

Herritarrek hitza eta protagonismoa behar dute arlo guztietan. Niretzat kultura sustatzea eta Berrizen kultur programa zabala eta erakargarri bat sortzea garrantzitsua da, herritarrek kultur ekintzetara hurbiltzeko eta herriko kultura sortzaileekin batera landuz. Ahal den ondoen eta zintzoen lan egiteko etorri gara, kargu berriak bertigo pixka bat ere ematen du, baina hemen izango gara herritarrek nahi dutenerako.

# LABURREAN

## NUEVA AREA DE RECREO



Junto a la escuela Learreta-Markina se ha acondicionado esta área de recreo, que durante las horas lectivas hará uso de ella el centro escolar y el resto del día estará abierto para uso de las y los berriztarras. Sobre todo cabe destacar la zona cubierta que viene a cubrir la demanda que existía en ese aspecto

## FAMILIA TRANSMISIOA

Guraso eta bikote gazteei, euren seme-alabekin euskara egunerokoan erabili ahal izateko bitarteko, baliabide eta aholkuak emango dizkien saioak eratu ditu Udalak Ekimenean parte hartu nahi duten bikoteei deia zabaldu zaie.

## CLASES DE EUSKERA

En colaboración con el Ayuntamiento Aek ya tiene diseñado el nuevo curso. Seguirá ofreciendo clases de euskaldunización a todos los niveles y este año, como novedad, clases online. El plazo de matrícula será del 1 al 22 de septiembre. El Ayuntamiento ofrecerá como hasta ahora ayudas económicas para estudiantes .

## ESKOLA AGENDA

DBHko ikasleek azken urteetan eurentzat bereziki prestatutako eskola agenda eskuratzen dute ikasturte hasieran. Agenda horren azal eta kontrazalak diseinatzeko lehiaketa eraten du Udalak eta hona hemen argazkiak aurtengo parte-hartzaileetako batzuk eta irabazlea.



## Historia oral de las mujeres

**El área de igualdad del Ayuntamiento** ha creado una beca de investigación, que ha ganado un proyecto que tiene como objetivo recopilar la historia oral de las mujeres de Berriz entre los años 1937-1975. Los encargados de la investigación son Aitziber Aramendi y Oier Iriondo. Durante año y medio, y mediante entrevistas a mujeres berriztarras, elaborarán un estudio sobre la vida y experiencias de ellas con el objetivo de recuperar la memoria de la época franquista en Berriz. El trabajo culminará con un documental en el que se recopilarán los testimonios de las mujeres que irán entrevistando durante la investigación.



## 196 ume eta 35 gazteren ardura

**Uztailaren 5etik 22ra egiten dabiltzan** udaleku irekietan 196 ume eta 35 gaztetxo parte hartzen dabil. Horien ardura 35 monitoren dute eta tartean irailetik aurrera herriko Gaztelekua kudeatuko duen Pagotxa Kultur Elkarteko kideak (argazkikoak).



Txikienek animaliak ezagutzeko ekintzetan parte hartuko dute. Lehen Hezkuntzako neska-mutikoei Markinako ur txorroetara, Lekeitioko itsasargia ezagutzeko irteera, Gorlizen surf egiteko aukera eta San Fermin jaia edota Herri Kirol jokoak praktikatzeko esperientziak biziko dituzte. Eta DBHko gazteek, saheski jaia, Zarautzen surf ikastaroa eta Mundakara gaubela egiten joango dira.

# JAI EK GOIA JO DUTE



**San Pedro eta Santa Isabel jaiak** beste urte batez arrakastatsuk egin dira. Parte-hartzea handia izan da eta astegun zein asteburuan antolatu diren ekitaldietan giro onean ibili gara berriztarrak. Zalantza barik, aurten ere paella lehiaketa eta koadrilen arteko bazkaria izan da arrakastatsuen: 1.387 lagun eta 56 koadrila batu dira.



# BERRIZKO AGENDA

## UZTAILAK 5-22

**Udaleku irekiak:** Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleak. Learreta-Markinan eta Gaztelekun.

## UZTAILAK 8

**22:15 Zinema:** Piratas del Caribe, Olakuetan. Doan.



## UZTAILAK 9

**Aukeren Azoka:** Berrizko Merkatarien Elkarteak antolatuta, Olakuetan, goiz eta arratsaldez.

## UZTAILAK 10

**Jaia:** San Kristobal Txiki, Sallobente auzoa.

**Elkartasun-jaia:** Esklerosi anizkotzaren alde, Berrizburu igerilekuan.



## UZTAILAK 11

**11:30-13:30 eta 16:30-19:30**  
Letren lorategia: liburutegi ibiltaria (margoak, jokoak, tailerrak...). Olakuetan.

**Lehiaketa:** Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaietan "Emakumeen Partehartzea" lehiaketarako lanak aurkezteko epea amaitzen da 14:00etan udal erregistroan.

## UZTAILAK 15

**22:15 Zinea:** Aguila Roja, Olakuetan. Doan.



## UZTAILAK 21

**20:00**  
Nazioarteko Folklore Jaialdia: Simyonov Servian Folk Ballet Ensemble (Serbia). Olakueta frontoian.



## UZTAILAK 22

**20:00** Nazioarteko Folklore Jaialdia: Udmurt State Folk Theatre "Aikai" (Udmurtia). Olakueta frontoian.



## ABUZTUAK 10

**Jaia:** San Lorentzo, Sallobente auzoa.

## ABUZTUAK 8 - 21

**Oharra:** Berrizburu kiroldegia eta igerilekua itxita, udako oporrak tarteko.

## IRAILAK 1-22

**Oharra:** AEK ikastaroetan izena emateko epea zabalik, udaletxean eta liburutegian.

## IRAILAK 13

**Oharra:** Berrizburu kiroldegiko lehen hiruhilabeteko ikastaroetan izena emateko epea amaitzen da.

## IRAILAK 11

**Oroimen Eguna:** Udalak eta Berriz 1936 Gogoratzen kultur elkarteak antolatuta, frankismoko biktimei gorazarrea.

## IRAILAK 19

**Hasiera:** Berrizburu kiroldegian ikasturte berriko ikastaroak.



## IRAILAK 29

**Jaia:** San Miguel, Okango auzoa.

## URRIAK 13

**Jaia:** SSan Fausto, Eitua auzoa.

## \* GOGOAN HARTU

**\* Abuztuak 8 - 21**

**Berrizburu kiroldegia eta igerilekua itxita egongo da, udako oporrak tarteko.**



## BERRIZKO TELEFONOAK

UDALETXEA .....94 682 40 36  
OSASUN ETXEA .....94 623 61 00  
KIROLDEGIA .....94 682 62 44  
KULTUR ETXEA.....94 682 78 60

ERRETIRATUEN ETXEA.....94 682 48 66  
LEARRETA-MARKINA .....94 682 43 44  
DBH Institutua .....94 682 49 62  
HAURRESKOLA.....94 682 63 39